



Ezker Abertzalea maiatzean present

TOLOSA ▶ Datorren urteko udal-hauteskundeetan, bertan izango direla berretsi dute

ALDERDIEN LEGEA ▶ «Prozesu demokratikoa aurrera eramateko hori deuseztea ezinbestekoa da» ▶ 6



Tolosako udaletxean atzo eskainitako prentsaurrekoko une bat. E. EZEIZA



NAIARA GARZIA



Gabonetako etxeetako apaingarriak

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ Eguberrietako jaiotzak egiteko zaletasun handia duten artistak badira bi eskualdeetan ▶ 4

RAMON LABAIEN ▶ ABERTZALE ERBESTERATUA

«Bataila galdu genuen,
baina euskara eta nazio
zentzuaren gerra irabazi»

Tolosako alkate abertzalea izan
zen bere aita gerraren hasieran ▶ 7

ETZI EZ DA
HITZARIK IZANGO

Bihar Urte Berri eguna denez, etzi ez da Hitzarik argitaratuko, prentsan ohi den moduan jai egun bat hartuko dutelako langileek. Asteazkenean berriro zuekin izango gara. Urte berri on opa dizuegu guztioi.



UZTURRETIK ▶ BITTOR MADINA

Euskaraz ba la dakizu? Si!



Silaba bakarrek eta aditugabeko erantzun borobila eta zorrotza egin zait orain dela gutxi Zarko Petan eslobeniarraren euskarara itzulitako goiko aforismoa irakurri dudanean. Orain arte, gure artean, hainbeste aldiz botatako edo entzundako galdera horren bukaera edo adierazpena hiru hitz desberdinez esan izan da.

Euskara dakienak eta erabiltzeko prest dagoenak «Bai» garbi batez eran-

zungo dio galdera horri. Ez duenak ulertzen edota ez dakienak «No» batekin bukatuko du galdera. Hirugarrenez, ikasten eta saiatzen ari dena, eta oraindik elkarrizketa oso bat borobiltzeko gai sentitzen ez denak «Bai... baina» botako dizu lotsati xamar. Hiru hauen esanahia ulerterraza egiten zaigu eta gure herriko hizkuntz ezagupidearen eta jarrenen ispiluak dira.

Baina goiko izenburuko «Si» horrek zer esan nahi digu? Galdera ugari sortu zaizkit bost hitzeko aforismo hau lerro gorritz azpimarratu dudanean eta hausnartzen hasi naizenean: Ezagupidearen baieztatpena? Txantxa? Adarjotzea? Zirikatzea? Beste hizkuntza batean jarrai-

tzeko gonbidapena? Herriaren egoera linguistikoaren adierazpena? Norberaren ama hizkuntza gutxitzea eta eguneroko praktikan *lilura estetikoa* ondoan duen beste hizkuntza batean bilatzea (gure kasuan gaztelanian)?

Beharbada denetatik zerbait izango du. Irakurri bezain laister gure gizartean ikusten dudana honako jokabide hauek gogoratu ditut:

Gure belaunaldiko eta baita ere gazteagoak diren zenbaiten praktika; bizitzaren hasierako urtetan euskara besterik jakin ez eta eurekin elkartu edota ondok pasatzerakoan gaztekeraz entzun beharra. Hauek *hizkuntz lilura* gaztelan aurkitu eta finkatzen dute. Badakite eus-

karaz baina beste hizkuntza bat olioztatzen dute barra-barra. Izena ere aldatu edo erantsi behar lukete hauek, «Si» jarriaraziz.

Beste batzuek, ordea, eta ez gutxi gainera, komunikatzerakoan *hizkuntz trenbide* batetik bestera saltoka aritzen dira. Lau esaldi euskaraz, zazpi gaztekeraz, bi aurrenekoan, hamar bestean. Bata gutxituz eta bestea gehituz, azkenean *liluratutako trenbide bakar* eta okerrean bukatzen dute. Belarrietara eta gehienbat bihotzera min egiten duen saltsa-maltsaren jarioa dute. Aspaldi, irakasbide ziri ederra asmatu eta idatzi zuten euskara elkarte batean:

«Aizu! Euskaraz hitz egiteagaitik erditontoa zarela pentsatzen baduzu, ez pentsa gaztekeraz jarduntzeagaitik listogoa bihurtuko zarenik».

ASTEKO IRUDIA ▶



IÑIGO TERRADILLOS

Ekuador eta Sahara laguntzeko Merkatu Txikia urtarrilaren 7ra arte zabalik

I. Terradillos ▶ Iragan asteartean ireki zituen ateak Laskorain Ikastolak urtero antolatzen duen Merkatu Txikiak, eta zabalik egongo da datorren urtarrilaren 7ra arte. Kultur Etxean kokatuta, era guztietako gailuekin egin daiteke topo bertan: jostailuak, liburuak, erropa, apaingarriak, etxetresnak... eta oso prezio baxuan gainera. Horretaz

gain, urtero bezala, bertan bilduko duten dirua behar dutenei laguntzeko baliatuko dute; aurtengoan, sahararrei eta ekuadortarrei laguntzatxoa emateko erabiliko dute dirua. Lehen egunetan jendearen harrera oso ona izan dela azpimarratu dute antolatzaileek, eta herritarrek animatzen dituzte oraindik egun asko geratzen baitira.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohiza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ESANA ▶



J.M. ITURRALDE
IDAZLEA

«Liburu bakoitzari eskatzen duen denbora eta ahalegina eskaini behar zaio»

«Idazle batzuek 'txurruak egiteko makina' ez dute inoiz itzaltzen eta etengabe jarduten dute»

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurraremendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IRITZIA ▶ ANATE ITURRALDE (IGARONDO MERKATARI ELKARTEKO LEHENDAKARIA)

Eguberriak eta kontsumoa

Pertsona batzuk Eguberriak merkataritza eta kontsumismoarekin erlazionatzen dituzte beti. Eta hau ez da erlazio ona, eta ez luke izan behar ino- rrentzat. Eta, gainera, argi gera- tzea nahiko genuke, merkata- riantzat ere ez dela batere ona. Ez gaitzela engaina euren energia jarrera ezkorretara bideratzen duten pertsona itxiek. Merkataritzan lan egiten duen jendeak ez du kontsumo arduragabea bultza- ten; kontsumoa benetan arduragabe egiten du-



tenak pertsona arduragabeak izaten dira. Eta non hasten da merkataria- ren erantzukizu- na? Kalitatea eskaintzean, jende- ari me- rezi duen bezalako tratua ematean, eta azken batean, zure erosketa ardura- tsua izatean.

Tolosako Igarondo Merkatar- itari Elkartearen mezua da. Eguberri zori- ontsuak opa diz- kizuegu guztiei, eta kontsumitu ezazu- elda adiski- detasun, pazientzia, errespetu, maitasun eta el- kar ulertze apur bat, baina turroia bezala, maila onekoa. Zorionak eta urte berri on!

TOLOSALDEKO
HITZA.INFO ▶

Gabonak:
sendian,
elkartasunean
igarotzeko
garaia. Nola
ikusten dituzu
zuk egun hauek?

Ez dakit zergatik baina jende- ak ez ditu bakarrik igaro nahi izaten... Pena pixka bat ematen du bakarrik dagoen jendeak, baina ez gea konturatzen urte osoan zehar askok bakarrik pasatzen dituztela gauak eta egunak, batez ere zaharrenek. En fin... Ez dakit... Neri gero eta gutxiago gustatzen zaiz- kit egun hauek. Familiarekin ondo moldatzen bazara, bue- no, baina rolo txarren bat bal- din badago... (famili gehiene- tan daude rolo txarrak eta Eguberri- tan arazo hoi- ek kon- pontzen dira E- statu Batuetako pelikula edo telesail- tan baka- rrik).

Hipokresia: goralari larria ematen du, kaleetan elkar aguantatzen ez duen hainbe- ste jende elkarri irrifarrea egin, bostekoa eta besarkada eman eta gorroto diogun horri, urte- berri onak eta gainerako txora- kerri guztiak desiatzen. Hori, ai- patu gabe nola aberasten diren lehendik ere aberats diren asko: jatetxe, taberna, denda... Nazkagarria nola iritzen den jende guztia egun eta ordu be- rean kalezulo berdineran, oso ondo pasatzeko gauza direla mundu guztiari erakusteko: benetan inori ez zaionean axo- la aldamenekoak ondo ala gaizki pasatzen duen. Edo zu- zenago esanda: «auzokoak gaizki pasatzen badu, hobe» pentsatzen ari direnean. Aski di! Arren: ez ezazue gezur han- di hau gehiago sinestu. Ah!

Oraindik ezjakin dabilenaren- tzat: Olentzerok, Errege mago- ek eta Eguberrietako zorionak gauza bat dute iguala: ez dira existitzen. Urte berri on!

KOXME ▶

Zer iruditzen
zaizu Tolosako
Leidor areto
berritua?

Hobetu diren bakarra eserle- kuak dira. Akustikak lehen be- zain lehorra izaten jarraitzen du. Hainbesteko inbertsioa eta...!

MUSIKAZALE ▶

Niri egokia iruditzen zait. Itxu- ra modernoa du eta gainera eroso da. Zorionak!

TOLOSAR BAT ▶

Akustika ez dela hobetu esa- ten duten horiek zer dira, «Yo traje la acustica a Euskadi» esango luketene horietakoak? Horrelako jarrerak erraz au- rreikus daitezke. Arazorik ez.

OSKAR ▶

Zure ustez, OTA
irtenbide egokia
da dagoen auto
kopuruari aurre
egiteko?

OTA aparkalekuek nabarmen hobetu dute Tolosan zegoen arazo bat; baina, hobetu leike oraindik. Zergatik ez zaie OTA txartelik ematen, lantokia OTA duten kaleetan dutenei? Ho- rrek asko arinduko luke, OTA gabeko auzoetan bizi diren he- rritarren arazoa, erdiguneko kaleetakoek auzo horietara jo- zen dutelako. Beste zalantza bat: noiz ordaindu ahal izango

dugu OTA benetan erabiltzen dugun minutuen arabera, eta ez, gaur egun bezala, alde- zurririk? Zergatik udaletxeko ar- duradunek hain gutxitan eran- tzutzen diote galdera klase honi?

KOXME ▶

Nire ustez lehen baino aparka- tze- ko arazo gutxiago egoten da orain, baina egunez bakarrik. Izan ere, gauetan, edota, aste- buruetan, ez dago Tolosako er- diguneko aparkatuko duen gi- zasamerik! Aparkaleku gehia- go jarri beharko lirateke, edo bestelako irtenbidea eman arazo honi, benetako arazoa baita autoa egunero erabiltzen dugunontzat.

GORKA ▶

Etorkin
adingabeen
egoera nola
ikusten duzu?

Gu beraien herrietara (dema- gun, Marokora) joaten garene- an, gustuko izaten dugu ongi tratatuak izatea. Aldiz, beraiek, eta beste arazo batzuegatik, gure herrira etortzen direnean, beldurtu egiten gara. Azken fi- nean, ispi- laren aurrean jar- tzen gaituzte. Materialari, beste ezzeri baino garrantzi handia- goa ematen dion sistema eta herri ustelen ondorioa da etor- kinekiko mespretxu hori. Etor- kinez hitz egiten hasiz gero, Gaztelak herri hau odolaren in- darrez zapaldu zuenetik hasi beharko ginatete... baina tira, Tolosako Udalak hori ere omendu egiten duenez, zer esango bada?

ILARGI ▶

Ez zaie behar bezalako arreta eskaintzen eta gero hortik sor- tzen dira arazoak.

MIKEL ▶

AZOKA ▶

Urteko
azken azoka,
eguzkitsua
eta alai

Zerrenda ez zen gehiegi aldatu atzokoan; apaingarriak nagusi izan ziren

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna eguzki- tsua eta alai azaldu zitzaie- n bertaratu ziren herritarrei. Giroa oso polita izan zen, eta goizeko azkenengo orduetan jende ugari zebilen postuen artean. Zerrenda ez zen asko aldatu; neguko barazki asko, porruen, azenarioen, azaren, borrairen edo eta espinaka- ren kasu. Errezil sagar asko postuetan, eta gabonetako apaingarriak mahai gehiene- tan.

Atari kalean izan ziren bai- ta ere postuak. Hauetan baso espezieak eta frutarbolak saldu zituzten. Haritza, pa- goa, gaztainondoa, pinua, se- kuoia, douglas-a eta urkia baso espezieen artean, eta mota askotako sagarrondo- ak, udareondoak, gerezio- ndoak edota aranak, besteen artean.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Azalea	5,00	8,00
Pazko lorea	5,50	7,50
Pensamientoa	1,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Gerbera	12,00	-

Bertako produktuak

Reineta	2,00	-
Errezil sagarra	0,60	8,00
Intxaurra	3,00	4,00
Hurra	2,00	3,00
Kiwi	3,00	-
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Azenarioa	1,20	10,00
Arraultzak	1,30	2,10
Artisau ogia	2,29	2,97
Ardi-gazta	14,00	18,00
Behi-gazta	7,00	7,50

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Baraxuria	1,60	6,00
Dilistak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	-
Tipula	1,75	2,00
Erremolaba	1,60	-
Letxua	1,00	-
Azukrea	3,35	-
Mermelada	3,00	3,60

GIZARTEA ▶

Gabonak ospatzeko jaiotza ederra

Gabonetako ohiko jaiotzaren proposamen ezberdinak egin dituzte

NAIARA GARZIA

Denbora aurrera doan heinean ohitura batzuk galtzen doazela, baina bada, oraindik, Gabonetako ohitura nagusienetakoari helden dionik ere, jaiotzari, alegia. Tolosaldean eta Leitzaldean bat baino gehiago izan dira haien etxeetako hormeta-

tik haratago jaiotza ederrak egin dituztenak, jendeak ikus ditzan.

Anoetako Joxe Leon Larrarte da horietako bat. Udaletxeko plazako lokal batean jaiotza jartzea erabaki du aurten, lehenengoz. Erositako hainbat irudiz gain, berak egurra landuz duenez, eskuz egindako

animaliak, etxetxoak, errotxoak, zubiak... tartekatatu ditu bere proposamen pertsonalean. Egindako lanarekin «pozik» gelditu da eta jada hurrengo urtera begira hasi da. «Hurrengo urtean dagoeneko nola egingo dudan pentsatzen hasia naiz».

Leitzako Orkatz Erbitik udaletxean jarri du mendixka ugari, erreka eta hainbat eszenez betetako jaiotza. Goizez eta arratsaldez bertan izaten da jendeak ikus ahal izateko eta oraingoz jende asko hurbildu da bertara. Herriarren harrera ikusita hurrengo urtean jaiotza handiagoa egingo duela azaldu du.

Tolosako Zezen Plazan, berri, Peña Frascueloek urtero bezala jaiotza jarri dute, errota, taberna, eliza, zeramika tailerra, harategia, ehundegia eta guzti.



Eskulana. Hainbat irudiz betetako jaiotza egin du Joxe Leon Larrartek bere lehenengo proposamen honetan, eta egurrez egindako figurak tartekatatu ditu. N. GARZIA

ORKATZ ERBITI ▶ JAIOTZAREN EGILEA

«Tradizioan oinarrituta gauza berriak egiten saiatzen naiz beti»

Orkatz Erbitik beti izan du gus-tuko jaiotzak egitea. Bere zale-tasunak bultzatuta udaletxean jarri du aurten orain arte egin duen handiena.

Zergatik erabaki zenuen tamaina honetako jaiotza udaletxean jartzea?

Urtetik urtera etxean jaiotza handiagoa egiten nuen eta jada ez zitzaidan sartzen. Horrexegatik pentsatu nuen beste leku bat eskatzea.


Noiz hasi zinen dena prestatzen?

Abenduko zubian, eta inaugurazioa 23an izan zen.

Jendearen harrera zer modukoa izan da?

Oso ona. Inaugurazio egunean 100 pertsona inguru etorri ziren eta 24ean, ehundik gora.

Gustura gelditu al zara?



N. GARZIA

Bai, tradizioan oinarrituta gauza berriak egiten saiatzen naiz beti, eta horregatik esan dezaket ez dela ohiko jaiotza bat. ◀



Erreka. Jaiotzetan beti bada erreka bat eta Orkatz Erbitik berea ere jarri du. N. GARZIA



Erregeak. Jaiotzako iskiean jarri ditu Errege magoak, mendian behera datozela, leitzarrak. N.G.



Jaiotza mekanikoa. Zezen Plazako mekanismo ugari ditu. Ondorioz irudi asko mugitzen dira. N. GARZIA

ABENDUAK 31, arratsaldeko 7retan
Villabonako plazatik Zizurkilgo Joxe Arregi plazara
Manifestazio ixila
AIZTONGO BAILARA
giza eskubide guztien alde!!!

ZAS
soinu ikastaroa
Informatika musikala (Cubase)
Grabaketa eta masterizazio profesionala
P.A. eta monitoreak
Eta aber
943 65 35 35
www.sointek.net

KIMETZ
GAZTE ARROPA
Nagusia, 23
• TOLOSA •
Tel.: 943 67 38 62

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Zer gai jorratuko zenituzke TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN? Zer aldatuko zenuke? Dagoen bezala ongi al dago?». Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia guk bertan proposatzen dizugun gaiaren inguruan. ▶



*Onena opa dizugu 2007. urterako.
Lorionak eta urte berri on*





TOLOSA ▶ POLITIKA



Tolosako Ezker Abertzaleko kideak atzoko agerraldian. E. EZEIZA

«Maiatzean present izango gara»

Ezker Abertzalekoek adierazi dute hauteskundeetan hor izango direla

ESTI EZEIZA

Tolosako Ezker Abertzaleak atzo berretsi zuen, datozen udal-hauteskundeetan, «zein ziklo elektoral luze honetako gainontzeko hauteskundeetan» present izango dela, eta gainera, «edozeini dagokion berme guztiekin». Honekin batera, herritar guztiei gonbita luzatzen diete parte hartzera, lanera eta iritzia ematera.

Halaber, prozesu demokratikoa aurrera ateratzeko alderdien legea «deusezte» ezinbestekotzat jotzen dute Ezker Abertzalekoek. Hala, oztupo eta zailtasun hauek guztiak gainditzeko, Antton Izagirre Tolosako alkate ohiak agerraldian adierazi zuenez, «guztiok hainbat urrats eman behar ditugu». Aditzera eman zuenez, «Tolosako udaletxean alderdien legea aplikatzen da eta Udaleko kideek ez dute ezer egin nahi izan hori aldatzeko».

Tolosa Biziriketako kidearen esanetan, «Tolosako EAJ, EA, PSE-EE eta PPK, legitimoki ez dagokien lekua hartu dute lau urte hauetan, egoera demokratiko hau gainditzeko inongo

borondaterik erakutsi gabe». Arazoak arazo, Ezker Abertzaleak bere proiektu politikoa eta ordezkaritza aurkeztuko dituela berresten du, «aldaketaren alternatiba» bezala agertuz beraien burua.

Ezker Abertzalekoen aburuz, aurreko lau urteetan beraien udal dinamikatik baztertuak izatea «erabat kaltegarria» izan da Tolosa eta tolosarren interes herritarrentzat. «Hala, lau urte hauetan Udalaren gestioa eta kudeaketaren ardura izan dutenak, egoera ez demokratikoaz baliatu dira besteak beste, euren buruei soldata itzelak aitortzeko eta proiektu garrantzitsuenak herritarren hitza errespetatu gabe kudeatzeko». Horien artean aipatu zituzten, «etxebizitzaren politika baldintzatzea interes ekonomikoetara makurtuz, gizarte zerbitzuen privatizazioa, udal jardueran euskararen atzera pausoa, enpresa pribatuaren negozioarako atek zabaltzeko erabakia, gastu soziala murriztea eta propagandarako eta interes pertsonaletarako dirutza handiak erabiltzea».

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Trikitixa. Trikitixa salgai. Telefono zenbakia: 619 72 82 92.

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantak eta sapaia. Egoera onean. 14.000 euro. Deitu 943 65 41 43ra.
Autoa. Ford Scort 1.800 Td.

Matrikula: SS-BC. Interesatuak deitu 943 65 52 88ra.

BESTEAK

Loradenda. Loradenda eskualdatzea Lasarten. 30 urte baino gehiagoko jarduera, materiala eta guzti. Telefona: 843 36 75 75 edo 626 50 56 89.

TOLOSA ▶ MUSIKA



Gabon kantak Santa Klarako hormen artean

E. Ezeiza ▶ Herenegun iluntzean kontzertu berezia eskaini zuten Santa Zezilia eta Donostiako San Inazio abesbatzakoeak. Hauekin batera aritu zen Tolosako Arimaz kamararen orkestra. Jende

ugari hurbildu zen ostiraleko saioaz gozatzeko. Orain dela gutxi kontzertu bera eskaini zuten Kursaallean. Eguberrietako abestiak interpretatu zituzten musikariek. JOXEMI SAIZAR

TOLOSA ▶ ANTZERKIA



Marilok Amaroako umeak esnatu ditu

E. Ezeiza ▶ Amaroako antzerki artisauek antolatuta, *Marilo Beti Lo* haurrentzako antzezlan eskaini zuten atzo Behi-bi's taldekoek. Neskato honen istorioak Amaroako gaztetxo eta ez hain

gaztetxoaren arreta bereganatu zuen. Marilo normalean lo badago ere, esnatzen denean, ipuin oso politak kontatzen ditu eta haurrak txunditu-ta uztea lortzen du. E. EZEIZA

IRURA ▶ AISIA



Niko eta Perikoren xelebrekeriak

E. Ezeiza ▶ Niko eta Periko pailazo xelebreak izan ziren atzokoan Irurako trinketeen. Elkarrekin eztabaida bizian eta sesioan aritu ziren etengabe pailazoak, haurren parte-hartzea bultzatuz. Bestetik, Irurako Eguberrietako egitarauaren baitan, mendi ibilaldia izango da gaurkoan. 10:00etan San Migel plazatik abiatuta, Loatzora joango dira egun pasa. Bihar berri, ohiturari jarraituz, 11:00etan, Urteberri eguneko meza izango da. E. EZEIZA

RAMON LABAIEN ▶ ABERTZALE ERBESTERATUA

«Bataila galdu genuen, baina euskara eta nazio zentzuaren gerra irabazi»

Bere aita Tolosako alkate abertzalea zen gerraren hasieran;
Saran egon ziren urte batzuetan itzuli ahal izan bitarte

JOXEMI SAIZAR

Gerra hasi zenean, umea zen Ramon Labaien Sansinenea (Tolosa 1928). Aita, idazle eta euskaltzale ezaguna, Tolosako alkate abertzalea zen orduan. Ama, Carmen Sansinenea donostiarra, eta bi semeak, Ramon eta Matxin —pintore ezaguna— hartu eta Iparraldera joan behar izan zuten urte batzuetarako. Itzuli zirenean Kimika ikasi zuen Madrilen, hainbat lanbide eta zaletasun izan ditu eta Donostiako alkate, Eusko Jauriaritzako Kultura sailburua eta legebiltzarkide izan da. Gerra Zibilaren 70. urtemugan, bera aukeratu dugu sail honi amaiera emateko.

Zer gogoratzen duzu gerra aurreko Tolosaz?

Aita alkate zen eta Azurza karlistarekin eztabaida handiak izaten zituen. Aita zeharo urdu-ri etorten zen udaletxetik sekulako giro nahasia zegoelako garai hartan. Bokazio politikorik ez zuen. Biolina, antzerkia eta horiek zituen gustuko. Baina amaren osabak, Doroteo Ziaurrirek, sartu zuen hor. Oso EAJkoa zen, EBBko lehendakaria izana. Ni ikastolan nengibilen, Laskorain kalean. Arantxa Munita zen andereñoa. Gorriti plazan beste ikastola zegoen, Dolores Arbilla andereñoarekin. 1936ko uztailaren 7an lehen jaunartzea egin genuen San Frantziskok, lehen aldiz ikastolak antolatuta. Inork ez zuen susmatu zer zetorren handik hamaika egunera.

Nola izan zenuen gerraren berri?

Uztailaren 18an Donostiara joan ginen amarekin eta Kontxan paseatzen ari ginela Mari-txu Moraizekin, Nauticoren parean, altxamendu bat izan zela esan zion norbaitek amari. Etorri ginen Tolosara eta aitak hori Sanjurjada bat izango zela esaten zuen, hamabost egun irauango zuela. Handik egun gutxira, aita etorri zen eta militarrek Beasainen zeudela eta atera egin behar genuela esan zion amari. Maletak egin eta Zarautzera joan ginen. Lehen gudari boluntarioak eta EAJ osoa han kontzentratu ziren.



JOXEMI SAIZAR

Terraza zegoen hondartzaren gainean eta katalajo batzuk zeuden. Handik *España* eta *Cervera* untiak Donostia bonbardatzen ikusten genuen. Jende asko harrapatu zuen Zarautzen, Espainiako aristokrazia guztia, oporretan zegoelako. Horietako asko gudariei eskerak ebakuatu ziren Getariatik eta ezbeharrik ez zen gertatu.

Eta Tolosan zer gertatu zen?

Aitak dimittitu egin zuen. Sekulako istiluak izan ziren. CNTkoek eta beste batzuk hamaika lagun fusilatu egin zituzten Donostiako paseo Berrian eta aitari leporatu zioten hori, baina ez zuen zerikusirik izan. Lehendik aitak eta jakin zuten Aranburu, Caballero eta horiek karlistekin San Sebastianeko ermitan, Gazteluko bidean, bildu zirela eta, besteak beste, nire aita Fernando Poora desterratuta bildatzea erabaki zutela. Artilleria hartu Loiolako koarteleatik eta noizbehinka tiro egiten zuten Gaztelu eta Leaburu aldera, han baitzeuden karlistak, jaistera ausartu gabe. Eta oraindik Leaburuko

elizak badu tiro baten marka. Izaskungo kaskoan azaldu zirenean trenbidetik alde egin zuten Anoetara, Alkizara eta Zarautzera. Gu han ginen jada, jendeak nola alde egiten zuen ikusten.

Zenbat denbora egin zenuten Zarautzen?

Zortzi urte dituzenean denboraren zentzua ez da berdina. Niri iruditzen zait denbora asko egon ginela, baina ez dakit. Altxatutakoak hurbildu zirenean aita tropekin laguntzera joan zen Bizkairuntz. Mutrikura iritsi eta han txalupa motordun bat hartu eta Zibururara pasatu zuen. Aitak ez zuen gerra egin. Gu berriz, Oñatira joan ginen, han familia genuelako. Etxea agustindarren elizaren ondoan genuen eta gogoratzen dut ondo karlistak tiro batzuk botatz nola jaitzi ziren. Buruan sartua daukat. Eta kalean dozena bat miliziano edo gudari kamioi batean sartu eta San Prudentzio aldera joan zirela. Eta atzetik mutil gazte bat fusil batekin eta jendea esaka korri egiteko, besteak bazeto-

zela. Bi falangista eta txapelgorriak sartu ziren auto txiki batean. Gero hasi ziren mutil koskor guztiak formazio paramilitarretan sartzen: pelaiokak (karlistak) eta fletxak (falangistak). Amaren etsaiak karlistak zirenez eta besteez ezez ez zekienez, ni falangista sartu ninduen, fletxa. Han estazio aurrean egiten genuen formazioa egurrezko fusil txiki batekin. Falangistak Mussoliniren faszismoaren bertsio espainola. Karlistak berriz, foralistak ziren. Benetan gure arteko gerra zibila izan zen, desberdintasun oso txikiak zirelako, abertzaleak eta karlistak denak sustrai berekoak ginen. Francok engainatu egin zituen karlistak. Gerran odola isuri egin zuten azkenean diktadura militar bat kontsolidatzeko.

Oñatitik nora joan zineten?

Tolosatik aitonak Donibanera zortzi egunetarako joateko baimena gestionatu zigun. Aitona etorri zen bila, joan ginen Tolosara, egun pare bat pasatu bere etxean eta Ildefonso Kalparsororen autoan joan ginen Iparraldera. Gurekin batera Teresa Elozegi joan zen autoan, bere senarra —Bandres, idazkaria, tuberkulosia zuen— zaintzera Baionara. Bidai osoa negarrez egin zuen, bere semea Luis falangista erail berria zuelako fronteant, buran tiro bat emanda. Gu Zibururara joan ginen eta han gelditu ginen udazken hura eta Sarara 1937ko apirillean joan ginen.

Nola bizi zineten Saran?

Eskola komunalerara joan ginen. Dena euskaraz egiten zen herrian, baina eskolan frantsesez eta ez genuen ulertzen. Frantses gutxi ikasi nuen orduan. Ondoa Candido Bolibarren familia bizi zen, katedratikoa zen natur zientzietan, Negriren idazkaria izana. Eskursioak egiten genituen animaliak ikustera, mitxirrikak —orduan hala esaten zitzaion Tolosan tximeletari—. 1939an, kanpaiak jotzen hasi ziren, munduko gerra hasi zela eta. Gerra Zibila amaitzen Pio XII. Aita Santuak Franco bedeinkatu zuenean disgusto handia izan zen guretzat.

Tolosako ondasunak galdu egin al zenituzten?

Laborde y Labaien enpresa ez zuten itxi, jarraitu egin zuen martxan familiako besteekin. Aita hango kontablea zen. Etxea bai, sakeatu egin zuten eta sindikatua eta Falangea jarri zuten bertan.

Noiz itzuli zineten?

Maristetan hasi nintzen batxilergoa egiten eta Donostiako jesuitetan bukatu nuen batxilergoa. Ni izan nintzen lehena itzultzen. Pasaian bizi nintzen osaba Jesusekin. Gaizki pasatu

AITA

«Bokazio politikorik ez zuen, biolina, antzerkia eta horiek zituen gustuko, baina Doroteo Ziaurrirek sartu zuen»

GIROA

«Itzultzean gaizki pasatu nuen, giro libre errepublikazale batetik etorrita nazional-katolizismora...»

TOLOSA

«Nolabait burgesiaren arteko elkartasuna izan zen gerra ondoren; harremanak normalak ziren jendearekin»

nuen, giro libre errepublikazale batetik etorrita hemengo nazional-katolizismora... Gurasoak han zeuden oraindik. Gero anaia etorri zen ikastera eta aita 1947an itzuli zen, baina Donostiara, etxea okupatuta zegoelako. Tolosara 1951-52an itzuliko ginen.

Eta Tolosan ere giro hori aurkitu al zenuten?

Ez. Nolabait burgesiaren arteko elkartasuna izan zen. Harremanak normalak ziren jendearekin, nahiz eta beste aldekoak izan. Politika gutxi aipatzen zen. Azurza, Aranburu eta karlista horiek etsita bezala zeuden, hanka sartu zutela konturatuta. Enpresetako nagusien artean denak parienteak egiten ginen. Raguan bai, gaixtoa zen, berez, ez politikagatik. Amaren lehengusu batekin zegoen ezkondua eta aitak *Escenas papeleras* liburua idatzi zuenean salatu egin zuen.

Beraz, aldatzea handirik ez zenuen somatua.

Ez. Karlismo zaharra eta nazionalismo sabinianotik abertzaletasuna sortu da. Burgesia liberal zaharra PPri botoa ematen jarraitzen du, hori ez da falta. Aldaketa nagusia ez zen gerraren ondoren izan, azken 25 urteotan baizik. Euskaldundu egin da Tolosa. Beste Tolosa bat da orain. De Gaulleren esaldia erabilita, bataila galdu genuen, baina euskalduntasunaren eta nazio zentzuaren gerra irabazi dugu

OHARRA ▶

Elkarrizketa hau osorik eta Gerra Zibilari buruzko sail honetako besteak guzto webgunean ikus ditzakezue.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Alegia. Etxeratek deituta, urteko azken eguneko manifestazioa, 19:00etan herriko plazatik abiatuta, *Euskal presoak Euskal Aitzo.* Herriko plazan, 20:00etan, presoan aldeko elkartetza.

Tolosa. Amnistiaren Aldeko Mugimendua deituta, Triangulo plazan, preso eta iheslarien aldeko topa, 19:30ean. Bihar, Urteberri egunean, Uzturre mendira egingo dute iguera.

Tolosa. Osakidetza euskarazko azterketa prestatzeko matrikula zabalik dago Aitzo Udala Euskaltegian, urtarrilaren 8tik 10era. Telefono zenbakia: 943 65 10 06.

Tolosa. *Xurdir kobazuloan galdurik* haur antzerkia, etzi, Leidor aretoan, 17:00etan.

Tolosa. III. Sahararen Aldeko Euskal Karabana: *Piztu itxaropena* abian da. Aurtengoan, hegaluzea, arroz, diliastak, azukrea eta konpresak bilduko dituzte. Urtarrilaren 7ra arte Laskorain Ikastolaren Merkatu Txikian utzi ahaliko dira, eta Maxi Eroski, Consum eta IFA supermerkatuetan urtarrilaren amaierara arte.

Tolosa. Laskorain Ikastolak antolatuta, Kultur Etxean Merkatu Txikia, Sahara eta Ekuadorren alde, urtarrilaren 7ra arte.

ZINEMA

Tolosa. Gazteboentzako *Ratopolis* filma, bihar, 17:00etan Leidor aretoan.

Tolosa. *Scoop* filma, bihar, 19:30ean Leidor aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

Bihar
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.

Etzi
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaro auzoa, 9. 943 67 51 18.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Eguberrietako topaketei adio

ALEGIA ▶ Alegiko Eguberrietako bosgarren pilota topaketen barruan, atzo jokatu zituzten lau finalak: prebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak



Atzoko finaleko lehenengo partida. N.GARZIA



Asier Alonso, Iñaki Olano, Mikel Artola eta Xabat Ibaguren eskuak prestatzen. N.GARZIA

NAIARA GARZIA

Alegiko Eguberrietako topaketen baitan, aste gutxian zehar 50 partida inguru jokatu ondoren atzo azkeneko lau norgehiagokak jokatu zituzten Alegiko pilotalekuan. Prebenjaminak (Iñigo Otamendi eta Lander Karrera Julen Oiarbide eta Aitor Agirren aurka), Benjaminak (Aratz Irazustabarrena eta Juan Felipe Agirre Gorka Altuna eta Beñat Garmendiaren aurka), Alebinak (Iñigo Ormazabal eta Xuar Jauregi Beñat Amiano eta Amri Muruaren aurka) eta Infantilak (Beñat Zabala eta Gorka Senperena Iñaki Artola eta Egoitz Gorostidiren aurka) izan ziren jokaturako kategoriak.

Alegiko Ikaztegiako eta Aitzoko pilota eskolak eta guraso elkarrekin izan dira, urtero bezala. Gabonetako topaketak antolatuta dituztenak, dagoeneko, bosgarren aldiz.

Jose Luis Zabalak, Intxurre pilota eskolako arduradunak azaldu duenez, «partaidetza oso zintzoa izan da. Umeez eta gurasek izandako jarrera zoriontzeko modukoa da, izen emandako gazte guztiek parte hartu baitute». Honetaz gain, giroa ezin hobea izan dela azpimarratu du Zabalak: «oso giro polita izan dugu eta kiroltasun osoz jokatu duteek».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iban Alegre (Ibarra).
 Bihar zure urtebetetzea. Zorionak etxekoan partetik!



URTE ASKOAN
Inhar Jauregi (Belauntza).
 Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat amonaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa
- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea

hitza agurren tartea

egunero opari bat...
 alabari, lagunari, izebari, aitonari...
zuk nahi duzunari

oparitu
HITZA-ren
 harpidetza

Eskaera egiteko deitu
902 82 02 01 telefono zenbakia